


ttipi-ttapa

1991eko Otsailak 7

55. zenbakia

dohain banatzen da



ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

• 4.000 ale •

POTTOKA: AMAIURKO ROCK-EROA

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

MODULO BAT

1.000 Pzta.

HIRU MODULO

3.025 Pzta.

SEI MODULO

5.550 Pzta.

BI MODULO

2.000 Pzta.

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herrietako **4.000 etxetara** zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»



ERAKUSKETA

BEREAU ETXEA

Lesaka - Nafarroa

Tfnoa: (948) 63 72 66

SUKALDERAKO ALTZARIAK



Zatoz ikustera!
Presupuestoak, loturarik gabe

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/21** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 22** **ERREPORTAIA:** "Zenbat jende bizi da gure herrietan?" lazko demografi gorabeheren datuak herriz-herriz.
J.M. Irigoien
-
- 24** **ELKARRIZKETA:** "Pottoka: Estudioan grabatzea, zuzenean jotzea baino zailagoa egin zait"
J.M. Irigoien
-
- 26** **KIROLAK:**
Mattari, Aitor eta Club Ciclista Beratarra
-
- 28** **OSASUNA:** "Bihotz infartoen prebentzioa"
Benedicto Agirre
-
- 29** **ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Alzuguren
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-
- 31** **DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.000 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

AGENDA

Bertsoak

► **Saran**, otsailaren 17an, Omordian, arratsaldeko 4ak aldera, bertsulariak:

Ernest Alkat, Manuel Arozena, Jon Enbeita, Txomin Ezponda, Jon Sarasua eta Xanpun.

Gai-emailea: Daniel Landart.

Sarako Olhain Kultur Elkarreak antolatua Elizanburu urtearen ospakizunen barnean.

Gastronomia

ITSASAPO EDO RAPE SALTSA BERDEAN

Osagaiak 4 lagunendako: 700gr. rape garbitua, kilo erdi almeja, baso-erdi bat ardo xuri, baso-erdi esparragu sal-



Justa Ostolazak emana, TXOKO Erretegia, ITUREN.

da, baratxuriak, perrexila, olio.

Itxasapoa irinean pasatu eta kaxulan jarri. Alde batetik pixka bat egin denean, buelta eman. Ondoren, ardo xuria bota eta utzi denbora pixka bat. Bota gero esparragu salda eta utzi bertze 6 minutu eta azkenik, almeja kilo erdia ere bota.

Utzi egiten eta almejak irekitzen direnean, listo!

Lehiaketak

► **ttipi-ttapak** antolatuturik:

I. NARRAZIO
LABUR, KOMIKI
ETA ARGAZKI
LEHIAKETA

Lanak aurkezteko azken eguna pasatua denez, hemendik aurrera ez dugu lan gehiago jasoko.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztiei eta epaimahaiak erabakiko du.

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.200pzta. **Zerri gizona** (95-100): 142 pzta./kilo bizirik. **Urdamak:** 55-75 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....580-590
1.koa.....560
2.koa.....500

Baserriko feria

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....590-620
1.koa.....580
2.koa.....520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.
Batzango aretzea: 650 pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 370Pzta./Kg. Kanal. Behi

gorri ona: 420 Pzta /Kg. Kanal.

•**Aretze ttikiak** (15 egun inguru):
Nabarrak: urruxak 20.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 33.000 eta idixkoak 37.000 Pzta. (Prezioak jeisteko arriskua)

► **BILDOSKIA**
• 12 kgkoak 380 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Irratia

Xorroxin Irratia

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratzuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

Zinema

Las edades de Lulú

Bigas Luna
España 1990

Pelikula honek eskandaloa ezagutu zuen oraindik egin gabe zegoenean: Angela Molina izan behar zuen protagonista baina bere ustez, estzema batzuek pornografikoak zirela eta utzi zuen pelikula. Bere ordean, Francesca Neri italiar ezezaguna izan da pelikularen aktriz printzipala.



Almudena Grandes idazlearen liburuan oinarrituta, pelikula honek neska baten bizitza sexuala agertzen du, bere lehen es-

perientziatik hasita sado-masokismora iritsi arte, tartean taldeko sexua edota homosexualitatea ukitzen direlarik.

Ez da hau film porno bat, nahiz eta askotan erotismoa eta pornografia bereiztea zaila suertatu. "Las Edades de Lulú" arrisku hortan sartzen den pelikula da. Batzuentzat fuertea izanen da eta bertzeentzat aspergarria, baina ez du inor indiferente utziko.

Musika

Baldin Bada

Baldin Bada
Euskadi - 1990

Hiru edo lau urte zerman Irungo laukote honek diskarik argitaratu gabe eta nabaritu egiten zaie hainbat urtetan zehar landu duten estilo aldaketa.

"Lur azpian bukatuko duzue" lehen diskaren doinu "ska" eta triki-rockero arrakastatsuetatik (Zirt-zart kanta "40



printzipales" -en 8. postura iritsi omen zen) oraingo rock soinu sendotara pasatu dira, tartean teklaturaren laguntzari uko eginez eta letrak gehiago landuz.

Musikari dagokionez, estilo berdintsua erabiltzen dute diska guzian zehar. Letrak berriz, droga eta heroinari buruzkoak, soldaduska eta beste gai ugari ukitzen dituzte baina beti ere kritika zorrotzari lekua emanez.

Abesti bat aukeratze-kotan "Hilik" izanen zen; letra garratza eta martxa kantaren lehen notatik bukaeraraino.

**BOTXO
ostatua**

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

**BEINTZAKO
OSTATUA**

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

**HERRIKO
OSTATUA**

Tfnoa.: 45 03 25
ITUREN

HONTAZ ETA HARTAZ



Ihauteriak Beran: Igande goizean Ihude eta artzaiak ibiliko dira karrika eta auzoen barrena. Egun berean Joselu Anaiak Altzate plazan. Astelehenez, mozorro lehiaketa arratseko 8etan eta gero Inguma taldearekin dantzaldia. Asteartean berriz, entzierroa arratseko 9etan eta Izan taldearekin musika.



Lesakan, Otsailaren 17an. Tantirumairu ikastolaren egoitza berriaren inaugurazioa izanen da. Hamazazpi urtetako historia duen ikastola honek merezi zuen horrelako etxe ederra. Zorionak!!!

Malerrekako Euskara Zerbitzuak urteko ekitaldiak prestatzeko deialdia luzatu otsailaren 12rako

Malerrekako Udalek, urtarrilaren 4ean izandako bileran, Zerbitzu horren buru denari kontratua berritzea erabaki zuten. Hona hemen ba berriro ere zuen artean dantzari, oraindik jende aunitzek zertarako denez dakien Zerbitzu hau!

Nafarroako Gobernuak eskeintzen duen diru laguntzarekin sorturiko zerbitzua da.

Zerbitzuaren lehen funtzioa Udala Administrazioa euskalduntzea da, hortarako behar diren planifikazioak egin eta bideak prestatu, bai Udala barrenean bai herritarren artean.

Maizetan entzuten da... "baina, euskara zerbitzua, zertarako? ... euskaraz mintzatzen baita hemen!! Bai, egia da, baina erdaraz ere franko mintzatzen da! eta batez ere haur eta gazteen artean, euskara baztertzen goazelarik!! Gaur egun gehienok erdaraz

idazten eta irakurtzen badakigu ere, gutxienok gara euskaraz irakurtzen eta idazten dakigunok... baina ez dugu hortaz lotsatu behar, horren arrazoiak denok ongi ezagutzen ditugu, baizik eta ikasten saiatu edo gutxienez gure seme-alabek ikas dezaten bultzatu!!

Zoritxarrez "normala" bezala hartzen da, etxean euskaraz mintzatu arren bertze tokietara joatean erdaraz mintzatzea... Hautsi ditzagun ba ohitura hoiek eta has gaitezen euskaraz mintzatzen eta alfabetatzen. Guztion artean gure hizkuntza egoera egokitzeko eta normalizatzeko...

Euskara Zerbitzuak dei bat luzatzen du biztanleei urtean zehar antolatutako ekitaldietan parte hartzeko.

INES GEREKA
Malerrekako Euskara
Zerbitzuaren teknikaria




Fco. Martin Aiestaran
BURDIN-LAN ARTISTIKOAK
450235 - ELGORRIAGA

12 Tfnoa: 45 01 53
DONEZTEBE
Ostatua

IRUBIDE
ostatua
erretegia
Tfnoa: 637127 LESAKA

GAZTAÑAGA
Taberna
Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 610708 - LEITZA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afori
eta gosariak

ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

GERRA EZ DA BIDEZKOA

Bortzirietako Pastoralta Kontseiluak, urtarrilaren 26an Igantzin bilduta zegoelarik, Pertsiar golkoko gerra eragileen jarrera salatu zuen, munduan zehar hainbat herri gerraren amaiera eta bakearen beharra oihuka eskatzen ari dela kontutan hartuz. Gerra honi buruz gotzai Batzarraren idazkari nagusiak adierazitakoa ere ontzat eman ez: "Gerra hau ez da bidezkoa. Gerra giza eskubideen zapaltzailea da eta Ebanjelioarekin batera ezina. Armaz egiten

den konponbideak, edozein dela ere, gizonaren eta Jaungoikoaren eskubideak kolpatzen ditu" Argi aski erran du Irak-eko obispo batak: "Hobe da hamar urtez negoziatzen aritzea, egun bateko gerra baino"



Bortzirietako Pastoralta Kontseiluak

LEKAROTZKO IRAKASLEEN KOMUNIKATUA

Pertsiar Golkoko gerra egoeran zeharrik duten botere guztien negoziatze gaitasunik

ezaren aurrean, irakasleok honako jokaera hauek salatu nahi ditugu:

1. EEBBk, Europako mendebaldeko gobernuak atzetik dituela, Kuwaiteko inbasio aurreko erregimenaren alde hartutako erizpidea.

2. Bi aldetatikako indar militarren erabilpena.

3. Giza eskubideen defentsaren manipulazioa, non azpijoku moduan ekonomi interesak izkututzen diren; palestinarren arazoa alde batera utzi nahi izatea eta eraberean, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbidea betetzen ez diren beste toki ba-

tzutan itsuarena egitea. Bestalde, pentsatzen dugu auzi bati dagozkion ondorio sozioekonomikoek eta historikoek arazoa bera gainditu ahal dutenean indarraren erabilkera ez dela justifikagarria.



Lekarotzko Irakasleak

OTSAILAREN 18AN J. ETXEBERRIA EPAITUKO DUTE

Sei hilabete igaro ditu jada preso. Kartzeletan daudenak bezala, errepresioabazia sufrituz bere-

gan, isolamendu zeldak, funtzionarioen bortizkeriak...

Orain estatua eta bere "demokrazia"ren zainzaileek farisa prestatu eta epaitu egin nahi omen diote. Baina epaitu nahi dutena, Herri honen askatasunaren alde borrokatzea da. Guri, preso guztien gan gure elkartasuna adieraztea gelditzen zaigu, ez bait dugu etsiko azkeneko preso kartzelatik ateri arte eta errepresioa deuseztatu arte.

Hori dela eta dei bat zabaltzen dizuegu antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko.

Bortzirietako Gestora


ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

GOZOTEGI - JAZONE



Itzea 3, 630786 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

J. M. ANDUEZA

Elektrizitate instalazioak

Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54

BERA



Legia 11 - 63 06 64 **BERA**

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 **BERA**

BOAN TAILERRA



CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - **BERA**

SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

“Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola” ofizialki zabaldu zuen Udalak



Sarrera hitzaldian, Iruñeko Administrazioari laguntza eskatu zen



Ikasleak ere protagonista izan ziren inaugurazio ekitaldian

ROMAN HARRIBILAGA

Zabalik geratu zen ofizialki “Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola” iragan Urtarrilaren 26an, ekitaldirako bi ataletan presaturik zegoen egitarauaren garapenarekin.

Eguerdiko 12etan, gela nagusian egin zen lehena, Berako Udalbatza, Jose Antonio Canoura ikastetxeko zuzendaria, Isidoro Fagoaga tenore beratarren senideak eta Iruñeko Gobernuaren ordezkaria zeudelarik bertan, tokia betetzen zuen jendearekin batera.

Alkateak zenbait xehetasun eskeini zuen berorien artean lanek behar izan duten 40 milioi inguruko aurrekontua, Iruñeko Ad-

ministratioaren dirulaguntza eskatu, bidenabar. Halaber, “onartua” bezala aurkitzen den eskola kontserbatoki bihurtzeko helburu duela Udalak erran zuen, musika irakaskuntzan azpiegituretat har zitekeena etorkizunean Bortziritan, bertze herrietan ematen diren antzeko erakundeekin lankidetzan. Jose Antonio Canoura ere hitza hartu zuen bere alde-tik, eskolaren funtzionamendua eta garapena azaltzeko, bertako ikasle talde batek zenbait kontzertu eskeiniz ondoren.

Arratsaldean berriz, 6,30etatik aurrera garatu zen egitarauaren bigarren atala, ikasle batzuren kontzertu emanaldiekin eta Berako Abesbatzaren kan-

tekin, Josu Goia eta Begoña Rudi-ren zuzendaritzapean, “Agur jaunak”ekin bukatutzat emanez ekitaldia.

ESKOLAREN JATORRIA

Udalaren ekimenez sortu zen musika eskola 1979 urtean, irakasle batekin. Gaur egun 150 beratar eta inguruko herrietako ikasleak dira solfeo, txistu, armonia, akordeoi, piano, koral, txirula, bibolin, gitarra, tronpeta, saxofoi eta klarinete gaiak ikasten dutenak.

Etxebizitza beharra neurtzeko inkestak

Babes ofizial eta promozio edo sustapen publikoko etxebizitzetarako aukerabidea izateko inkestarako deia egin du bando batez Udalak. Bertan, gal-

deketari erantzun ondoren, baremo baten arabera puntuaketa emanen dio bete duen bakoitzari etxeak eginen dituen VINSA enpresa publikoaren bidez Iruñeko Administrazioak adjudikazioak burutu ahal izateko. Inkestak beteta Udalera itzultzeko 30 eguneko da epea.

Etxeak Agerran erai-kiko dira, bakoitza, behea eta hiru solairukoa gehie-nez. Etxebizitza kopurua, aurkeztutako eskarrietan oinarrituko da eta bakoitzaren neurria 70 eta 90m² artean egonen da. Adjudikazioa egiterakoan 500.000 pezetako sarrera ordaindu beharko da zenbait alditan, 15 urtez hila-beteko maiztasunarekin ordaintzeko gaineratikoa.

LESAKA

Dena prest dago Iñauterietarako


Hilaren 9, 10, 11 eta 12an ospatuko dira

AITOR AROZENA

Larunbata honetan hasten zaizkigu Gabon jaien ondoren hainbat espero genituen Iñauteriak eta urtero bezala ekintza ugari prest daude egitarauaren barnean.

Larunbatean, gazteak izanen dute besta egiteko aukera, 10etatik aurrera, Lekarotzko UBikoen antolakuntzapean gau-pasa iragarrita bait dago frontoian Kanka eta Baldin Bada taldeekin.

Igandera pasatuz, eta ohiturari jarraituz zaku-zarren irtenaldia izanen da arratsean; aintzinetik frontoian prestatu eta karriz karriz ibiliko dira Lesakako bandaren laguntzarekin. Itzulia bukatuta, Plaza Zaharrean gerra txiki baten ikusle edo partaide bihurtuko gara, herriko gazteak zaku-zarrak urratzen dituzten aldi berean



Zaku - zarrak ohiturekin jarraituko dute

elkarri lasto tiraka hasiko bait dira. Igandeko gauean ere, San Fermin Jubilatuko elkarteko partaideek Iñautetako afaria egingen dute gaueko 9etatik aintzinerak Kasino jatetxean "Beti Jai" taldeak alaiturik. Eguerdiko lak aldera, zerrikume baten zozketa egingen dute Madrileko San Ildefonso eskolako haurrek plaza zaharrean.

Astlehenean berriz,

goizetik hainbat karroza ikusiko ditugu seguruenik, urtean zehar pasatutako hainbat gertakizun gaitzat hartuz.

Eta azkenik, asteartean, Goitarrak eta Fraindarrak eramanen dute musika eta alaitasuna baserri auzoetara eta herrira, eskean dabilzan bitartean. Musika ere izanen omen dugu Plaza Zaharrean igande eta astelehenean.

Egitarautik kanpo, beti bezala, "desmadrea".

Ahotsen faltan

Jakina da gure herrian dagoen musikarako afizioa eta honen barnean partaidetza garrantzitsua du Lesakako abesbatzak. Iaz emanaldi ederrak eman zituen, baina hala ere bertatik adierazi digutenez, jendez eskas omen dabilza.

Horregatik, eta gogoratu abesbatza parte hartu nahi duen edonori irekia dagoela, deialdia zabaltzen dute musika gustokoa eta ahotsa landu nahi duen guztiei Abesbatzaren partaideekin harremanetan jartzeko beldurrik gabe.

Ikastolaren inaugurazioa

Otsailaren 17an izanen da Tantirumairu ikastolaren egoitza berriaren inaugurazio ofiziala, nahiz eta klaseak ematen Gabonetako jaien ondoren hasi.

Dene

LENTZERIA
MERTZERIA

Beheko Plaza 8, LESAKA


**ARRATZUBI
ardotegia**

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

BIDEO BELAI

Hamabortzero pelikulen
aldaketa eta berrikuntzak

Tfnoa.: 63 77 80
LESAKA



**GOIZUETA
KIROLAK**

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA

**XATURETXEA
FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA


Larraburuaren inaugurazioa otsailaren 24ean

PELLO APEZETXEA

Herriko zaharren bizileku eta herriko jubilatuen egonlekutarako prestatu den Larraburu berriztatua inaugurazioa otsailaren 24ean ospatuko da. Iruñeko eta hurbileko zenbait agintari gonbidatuak daude berorretara, bertan egingen den bazkarira herriko jubilatuz guzietan luza-tuko zaiela gonbidapena. Aintzineko igandean, otsailak 17, Larraburu ateak herritar guzientzat zabalduko dira, barrenak ikusi ahal izanen dituztelarik, Landagain eskolarekin egin zen bezala.

Plazako zola berritzeko subasta

Laister hasiko dira, TTUPI-TTAPA hau argitaratu



Plazako proiektuaren plano

orduko hasi ez badira, plazako zola berritzearen lanak. Bi hilabetetako epea markatu du Udalak obra burutzeko, udaberri sartu berrian plaza berriztatua ikusi ahal izan dadin. Txokarro eta Urmeneta arkitektoen ondoko planoan ikusi dezakezu obraren no-

lakotasuna. Kolore beltzeko zatiak, pilota plazako pilareek bezalako harlosaz estaliko dira. Marra gurutzatuz ageri diren zatiak, pilotaplaza parean eta Zabaltea ondoan daudenak, arlandu (adokin) artifizialez. Plaza bazterrean eta udaletxe eta eliza

ondoan doazen gris antzeko zatiak, zeinak A, B eta C letraz seinatuak baitaude, harlosa desberdinez jantziko dituzte, hainbat etxe ondota ageri den antzera. Obraren kostua 13.706.000 pezeta da, aurrekontuen arabera.

Euskara Mankomunitatearen presupuestoa onetsia

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 27 milioi gastatzeko planak egin ditu 1991. urtean. Beraietatik 17 Nafarroako Gobernuarengandik espero dira, bertze 10ak direlarik Bortzirietako Udalek beren gain hartutakoak. Etxalar-koari 962.000 pezeta dagozkie.

IGANTZI

Herriko Jubilatuen besta otsailaren 8an izanen da

OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 8an ortzirala izanen da aurtengo igantziar jubilatuen besta eguna. Gehienak Arkupeak elkarteko partaide direnez betiko bideak erabiliko dira izenemate eta guztiak antolatzeko. Eman diguten egitaraua hauxe da: goizez meza izanen dute, gero bazkaria Herriko Etxean

eta ondotik seguru gaude dantzaldiren bat edo antolatuko dutela.

Kartelak paratu auzo eta karrketan

Paratu dituzte dagoeneko karrika eta auzoen izenak daramazkiten kartelak. Iniziatiba Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eskutik dator eta egia erran, bai informazio-

rako eta baita euskararen erabilpenerako ere izugarri ongi dator: Zenbait lekutan falta baldin badira ere bertze zati batetan egingen direlakoan gaude.

Istripua traktorearekin

Duela aste pare bat istripu larria izandu zen Juanito Etxebeste Arbitzekordakoak traktorea irauli

zitaionean. Meakaudi gaineke inguruan gertatu zitzaion eta zauri larriak jasan bazituen ere onerako bidean omen dago zoriez. Abudo sendatu dadila.



(bertze aldean segitzen du)

Igantzikko Biltokiko batzarre nagusia

Otsailaren 9an, arratsaldeko 8,30etan izanen da Igantzikko Biltokin urtean zehar egiten den batzarre-rik garrantzitsuena. Hau izanen da gai-zerrenda:

1.- Kontuen aurkezpena, 2.- Joan den urteko aktibitateak, 3.- Sozioen bajak eta sarrerak, 4.- Garbitasuna, 5.- Eskolako Komedorea, 6.- Galderak eta 7.- Juntaren berriketa.

Konbokatokiak jartzen duenez, etortzen ez denak

multa ordaindu beharko du (bakar bakarrik eri edo lanean egoteak balioko du justifikaziorako).

Udalak Land Roverra erosi

Udalak bigarren eskuko Land Roverra erosi du 275.000 pezetetan. Auto honen erostea beharrezkoa ikusten zen plantazioetako lanetarako eta garraiotarako.

Zuzenketak

Akats mekaniko bat zela eta honako heriotza hauek agertu gabe utzi ge-



nituen aurreko alean:

Valeriano Etxeberria
Ameztoi (1990 - 07 - 18).

Jose Iturbide Ordoki
(1990 - 09 - 05).

Barkamenak.

ARANTZA

Errandonea eta Agestatarrak pilotan ederki dabilzan mutilak

JON LARRETxea

Iazkoa urte bikaina izan da bi bikote hauentzat, izan ere Bidasoako txapeldunak gelditu bait ziren bakoitza bere kategorian.

Honez gainera, Ander eta Rafael GRAVN txapelketarako egiten den lehiaketan txapeldun ordeak gelditu ziren eta kurpil kirolak elkarteak Nafarroa eta Gipuzkoa artean egiten duen txapelketan berriro txapeldun atera ziren iazko abenduaren 29an. Baita ere, Rafael Lesakako Etxepetelekurekin txapeldun gelditu zen Garzaronen.

Dударik ez dago Rafael eta Ander, horrela segituz gero zerbait izatera iritsi daitezke.



Bi erronka

Lehengo alean Patxi Ordokiren (Idirten) marka aipatzen genuen, ba badi-rudi oiartzunik izan duela. Dagoeneko bi lagunek erran digute marka hori hobetzen saiatu nahi dute-

la. Aurrera ba mutilak; paratu eguna eta joanen gera horren berri jasotzera.

Elizan kalefakzioa

Nonbait elizan kristoren hotza egiten omen zuen eta ari dira jotake kalefakzioa jartzeko obrak egi-

ten. Horretarako jendearen diru eta lanerako laguntza eskatu zen eta badi-rudi jendea ongi erantzuten ari dela.

Beraz, hemendik aurrera meza entzutea goxoagoa izango da.

Lapurreta ugari azken bolada honetan

TXEMA ALDABE

Joan den astean eta aintzinekoan herriko zenbait lekutan sartu ziren lapurrak. Errate baterako Zaldua argazkidendan eta Askin ostatuan, lehenbizikotik 700.000 pezetatako balorea materialean eramanenez. Askinen berriz, bertan zeukaten diru guttia. El Café, Amezitia eta Maylin kasu, saiatu baldin baziren ere atea bortxatu ondoren alde egin omen zuten. Lekuko batek zioenez, hiru lagun ikusi omen zituen matrikularik gabeko kotxe batetan.

Barnetegi berria

Urtarrilaren 15tik Mar-



Barnetegiko ikasleak

txoaren 15era 20 lagun inguru daude Mendaur Barnetegian 2 hilabeteko Barnetegia burutzeko. Hegoaldeko lau herrialdetako ikasleak daude beren euskara hobetu nahian eta ziur lortuko dutela, gogo falta behinpin ez dute. Ez da harriztekoa izanen ingu-

ruko Inauterietan ikustea euskaraz barra barra. Goizean 4 orduko klase dituzte eta arratsaldean 2 taileurretan.

Suaren aurka "patrulla"

Suteak galerazteko hortxe dabilta Nafarroako

Gobernuko 10 langile hemengo menditan barna beren mendiko moto eta gutti. Beraz, ez harritu larrak erretzen ari zarenean agertzen bazaizkizu sua egiteko baimen eskatuz.

Askin - Arrondo

Askin - Arrondo mendi garbiketa, zulatze, landatze eta ixte lanak Migel Angel Oiartzabal-ek egiten ditu. Lan hau hartzeko Doneztebeko Udalak hiru lagun gonbidatu bazituen ere, Oiartzabalek bakarrik aurkeztu zuen eskeintza, hau 902.720 pezetatakoa delarik. Berehala egin beharreko lanak direla eta alkatea bera izanen da langileak bilatuko dituen.

DONAMARIA

Iñauteriak hilaren 8, 9, eta 10an ospatuko dira

SARA eta NATALIA

Orain dela urte saila batzuk, nahiko Inauteri onak egiten ziren. Baina, herriko gazte bat hil zenean, ospatzetik utzi genuen. Orduz geroztik, orain dela 3 urte arte ez genituen ospatu.

1988an herriko fundamentudun haur-gazte bakarrak hasi ziren; nola-baiteko astakilo eta karrusel batekin auzoz - auzo joan ginen. Pixkanaka aurrerapen haundia egiten ari



gara herri honetan eta Iñauteriak ospatzerakoan, Udalak diru mordoxka

ematen digu. Eta azkenik, herriko atso eta attun kalakariak animatzeko Iron

Maiden taldea ekartzea erabaki dugu.

Gerraren kontra

Hauek izan ziren, gerra hasi ondoren apezak erran zituen hitzak: "Nere ustez, Jaungoikoari gehiago errezatu bagenion, bai bakardadean eta bai familiaren artean, gerrate hau ez zen hasiko, zeren eta gure otoitzei esker Jaungoikoak adituko zigun eta horrela Sadam Husein-i bihotza ukituko zion".

ZUBIETA

JUAINAS

Gazteak kontuk egiten ari direnean azkenengo berriak bidali beharko ditut, nik, aurreko txanda galtzarekin nahiko bait dut...

Ez ditut lehen idatzi nituenak errepikatuko, juer-ga giroa nagusia bait zen, orain ere horrela da, eta, espero dut, izanendela gero ere. Inotik, noski! Hasi, arraru xamar hasi ziren... estalperik egonen zen ala ez zalantza bait zegoen... moldatu zen eta Bixkotengo Juanitok hatsa lasai harzterik izandu du. Txabolakoek errifa bat asmatu zuten, batzuen eritziz sobera garesti... Saldu zituzten ugarik, dena den, Ion eta Josebaren asaltuak zirela medio...

Gero Iturengo plazakoa agertu zen, zuloak ikusita noizko bukatuko zen ez bait genekigun... eta borobiltzeko Inotien aurreko igandean eliz ataria jendez alperrik bete zen, apeza



jauna lo bait zegoen. Guzti honek giro iluna osatzen ez baldin badu, zer gehiago behar da?

Desanimatu gabe gazteak saiatu ziren, aspaldiko partez aunitz bildu zirelarik. Txabola, auzolana... dena martxan zegoen. Pena merezi izan du baina dena kontatzerik ez dut! Espezialekin konformatu beharko dugu. Especial ona, gazteen sukaldea, musika eta kantantea zer esanik ez! Elizaldeko Juakintxo famatua bazen, dagoeneko marka guztiak hautsi ditu.

Haiek txaloak astearte-koak, mikrofono eskuan zuela orain hiru bat urte bezalako aidin egoterik zuen, kasik, hagitx politta!

Elizaldetarren gaua izanen zen, dudarik gabe, geroxeago Elizaldeko Patxikuk hartu bait zuen txanda. Errifarekin lortutako 40.000 eskeini zituen, gazteentzat, Patitak hartu zizkion eta gazteenak eman zizkion

Karrozak

Aparterako utzi ditut, zubitarren gogoia ederki



erakusten bait dute. Batzuentzat zakarrak, zubitarrentzat: defentsa eta ongi pasa modua, plazan lekua egiten dute eta Inotitako funtzioa bete... Errautsak, larrak, kartujoan herentzia eta izakera. Iturengo alkatearekin tirabiraren bat egon zela aditu dut, deus ez da izanen, seguraski. Hori bai, joaldunentzat faena galanta prestatu zuen, todotres munduko solairu onena dela esan omen zuen, tira ba! Obrak beti problemak sortzen dituzte, Zubietan ere...

URROTZ

Bota dute eskola

JOXEMARI URROTZ

Urtarrilaren 25an hasi ziren frontoiaren eraikuntzarako obrak. Egun horretan hasi zen botatzen eskola eta harri batzu berexi ondoren gainerako materialak Urrotzko sarrerako kurba betetzeko erabiltzen

ari da. Dagoeneko eskola lekutu ezik mendiari puska kendu ere egin zaio eta laister hasiko dira frontoia eraikitzen. Erran beharra dago jende aunitzek aitortu duela pena eman ziela eskola urratua ikusteak, beren haurtzaroan han egon bait ziren.

Kontsulta egin da

Medikuaren kontsulta ere ia bukatua dago, kanpoko eta barrengo moldaketak egitea bakarrik geratzen bait da. Herriaren bazterrean kokatua dago eta honek jendearengan zenbait kezka edo galdera

eragin ditu.

Presak ongi daude

Joan den hiru urtetan bederen, neguaz presak oso gutti bete ziren eta horrek eragin zuen udan laister



(bertze aldean segitzen du)

hustutzea.

Baina aurtengo neguan elurra egin du eta euri mor-do bat ere bai, eta nahiko ongi bete dira presak.

Errotako sozioen bilera

Bertzalde, errotako sozioen bilera eta kontuak moldatu ziren. Ez zen erabaki berezirik hartu eta oraingoz behintzat ez da pentsatzen errota martxan

jartzea, denbora franko bait du geldirik dagoela.

• Urrotzen, lehengo urteetan bezala ez da Inaute-
ririk eginen baina nolabait hasitzeko pentsatzen ari da otorduren bat musikaz alaiturik egitea.

TTIPI - TTAPA hau ateratzerakoan garaia pasatua izanen da noski, ez pentsatu horrenbeste atzeratuko garela.



SUNBILLA

Inauteak, gero eta hobeak

PATXI PETRIRENA

Orain dela bortz-sei urtetik honat Sunbillako inauteriek goiti doaien bizitasun eta ikusgarritasuna eskuratu dute, ondorioz inaute-igandea ikusmin haundiz espero izaten delarik, bai bertan eta baita inguruko herrietan ere, urtetik urtera gehituz doaien ikusle kopuruak garbi erakusten duen moduan. Horrez aparte, prentsan eta bertze komunikabideetan ere nabaritzen da honen

eragina, ikusi bertzela egunkarietako komentarioak, edo Euskal Telebista bera herrira etortzea. Prentsan agertutako komentarioak aski adierazgarriak izan dira: "inguru honetako inaute-desfilerik hoberena", eta abar.

Dagoeneko erranak izanen dira errateko gehienak, aipatu soilik eginen ditugu: hamasei karroza atera zirela, gaurkotasun haundiko gaien inguruan pentsatuak gehienak:



Argazkia: ZALDUA

Persikoko gerra, Bidasoako trenaren 75. urteurrena... Frontoiko jaial-

dian arrakasta haundia lortu bide zuen giza-idi pareak.

ITUREN

Inoiz baino joaldun gehiago

72 elkartu ziren guzira

IBAN ISASI

Ohi den jende pila izugarriarekin, handik eta hemendik etorriak, ospatu ziren aurtengoan ere inauteriak. Aurtengoak gainera

bazuten bestze berezitasunik ere: hirurogeitamabi (72) joaldun ibili zirela; inoiz bildu den kopururik haundiena, hain zuzen ere. Aipatzekoa baita, DYA eta Polizia Foralek egin zuten lana trafikoa antolatzen.



BAZTAN

Oilar dantza edo orakundea, gizakundea eta emakundea, Baztango Ihauterien ezaugarriak

MAÑONE eta JOSEBA I.

Lehen, Euskalerrian, inaute egunen artean, batzuk gizonentzat ziren, Gizakunde, bertze batzuk emakumeentzat, Emakunde eta denontzat zirenean Orakunde. Baztanen, mende erdialdean, inauteria baino hiru ortzegun lehenago Gizakunde izaten zen, hurrengo ortzegunean Emakunde. Gaur egun, ez bat eta ez bertzea ez dira ospatzen.

Orakunde

Eskoletako haurrek sorterrietan ospatu zuten besta hori aktibitate ugariarekin. Aipagarri da, aintzinek bi astetan, "puske biltzea" egin zela (lehenago arraultza, xingarra... gaur egun dirua). Lehen, puske biltzea gareakin egiten zuten zenbait herritan. Oilar dantza eguna akitzeko oilar jokoa edo hiltzea izaten da. Oilarra saski baten azpian jartzen da eta mutikoez, begiak estalirik, harrapatu egin behar dute daramaten ezpatakin. Lehenik ukitu edo jotzen duenak, damuin nagusia izanen da, neska bat hauta-



Argazkia: MENA

Baztango Dantzariak, Berroeta, Irurita, Oronotz, Elizondo eta Arizkungo dantzariak osatzen dute eta 15 emanaldi eman zituen Euskalerrira osoan joan den urtean. Aurtengo xehetasunen berri jakiteko, deitu 45 21 06 telefonora (Mari Joxe)

tu eta inauteri igandean bazkaltzera bere etxera joanen da.

Iñauteriak

Almandozkoekin hasi, gero Iruritako errekaok eta ondotik bertze herri guztietakoak heldu dira erraldoan, Francoren garaian ere ospatu ziren Iñauteri hauek. Herri guztietan mantentzen den ohitura etxez etxe puske biltzearena da. Ohiturak aipatzerakoan, bi ditugu Baztanen. Bat **Arizkunen**, hartzaren kanporatzea. Hartza dugu pertsonai nagusia, eta as-

tearte goizeko desfileen hartazaina, damak, arpe-roak, andregaia, gizongaia eta mozorroekin batera ateratzen da. Bertzea **Erratzun**, damak zarbonbekin. Denboretan Bozateko hartza ibiltzen omen zen Azkaraten.

Elizondon, igandean danborrada egitea berreskuratu egin da eta asteartean karrozak izaten dira. Aipatu ere dantzaldiak izanen ditugula, astelehenan Joselu Anaik taldearekin eta asteartean Jator taldearekin.

Gorramendin

ETBk indar haundiko antena berria jarri du.

Guarda berriak

Ebentual bezala lanean ari ziren 5 guardak, Iruñean ikastaro bat egin ondoren, fijo bezala gelditu dira.

Bideei buruzko HBren mozioa onartua

Honen arabera, balleko hainbat bide, zubi eta karrrika moldatu egingen dira; hauen artean Elizondotik Aldudesera Beartzun barna doaiena.

Pistak konponduko

Productos Bituminosos S.A. eta Asfaltos de Biurrun enpresek 82.409.480 pezetatan konponduko dituzte Baztango pistak.

Kiwiak Georgian

Sobietar Batasuneko Georgia errepublikan, KEW S.A. Baztango enpresak, kiwi landatu eta saltzeko enpresa bat sortu du bertako agintariekin batera. Georgia hautatu dute, fruitu hau hazitzeko bere lurra eta eguraldia egokiak direlako.

IPINGI MERKEALDIETAN GAUDE

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

BEATRIZ

Lurrin denda


SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

Lezeen subasta egin zen

MARGARI eta KORO

Azken urte hauetan bezala, urte berria hastean udalak egiten du lezeen subasta.

Hastean, %20a bere gain hartzen zuenentzat eskeinia izan zen, baina niorrek ez zituenez hartu, bigarren aldiaren ehuneko 25etara igan zuten, eta aldi huntan pertsona bakarra agertu zen eta berak gelditu ditu bertze urte baterako. Pertsona hau, Axun Irazoki izan da, eta holaxe, bere gain izanen ditu sarren saltzea (urteko egun guztietan eta goizeko 9etatik ilunabarra arte), lezeen garbitasuna, eta animaleak lezean ez sartzeko zaintzaren lanak.



Lezeak goizeko 9etatik ilunabarrarte edekiko dira

Bentetan arazoak

Europako merkato komun hortan sartu ginelarik hemen gehienak ez ziren sobera kontent jarri, eta bazituzten bere arrazoinak, makurra aunitz ekarriko

zuela uste bait zuten.

Bainan guzti hauetatik Bentetako nagusiak izan ziren kezkatuenak.

Iduri du 1.992ko urtea baino lehenago gauza hasi dela makurtzen, aurtengo

negua aski txarra gaki omen da bentetako negozioentzat, aferara arrunt hila omen dago, eta prezioak ere hasi omen dire Frantzia aldeko araberan paratzen (merkeago, noski), eta hortatik aparte, Senperen edeki dute bertze super-merkatu haundi bat eta hunek ere ekartzen du bere konpetentzia alde huntan.

Gauza hola segiturik ez dakigu zer pasatuko den, gero eta langile guttiago beharko bait dire bentetan lan egiteko eta gazteek bertze lanpostuak bilatu beharko dituzte.

Dena den, makurra haundia izanen da hemengo jendearentzat zerbaite berri ez balin bada konpontzen.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guztietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

SARA

Ihauterien bideetan

OLHAIN ELKARTEA

Aurten Sarako gazte-
txeak bere gain hartu du
Ihauterien antolakuntza.
Beraz, Otsailaren 9 eta
10ean iraganen dira. Ohi-
durari jarraikiz, antolatzaile-
leek erabaki dute Ihauteri
herriko baten egitera saia-
tzea. Galdegina da euskal
jauntzitan agertzea eta le-
hengo Sarako ihauterieri
ahal bezain hurbil egoite-
ko gisan, aurten mutiil an-
dana bat ibiliko da zaldiz.
Sarako plazan izanen da
elgarreratzea larunbatez
goizeko 8,30etan. Igande
goizean, meza nagusiaren

ondotik, dantzariak ikus-
garri bat eskeiniko dute.

Pottokak

Joan den Urrian, Pabe-
ko Mahaxelen bulegotik jin
manuak borbeaturik, Sa-
rako Herriko Etxeak pott-
toka kondaketa eta identi-
fikatze lanak egin behar
izan ditu. Orotarat hilabete
bat iraun du eta mendie-
tako pottokak, basa hala
jabedun, elkarretaratu di-
tuzte beren eremuetan. Su-
halmendin bururatu da
kondaketa joan den astean.
Orain ja pottoka baktokak
bere nortasun ageria ba-
dauka.



Otsailaren 17an, igandea, "Elizanburu urtea" ofizialki
hasiko da Herriko etxean; 10,30etan meza nagusia
bertsulari eta koralarekin; bazkaria Omordian eta
ondoren eskoletako haurrak kantuz. Baita ere, bertsula-
riak izanen ditugu: Alkat, Arozena, Jon Sarasua,
Xanpun, J. Enbeita eta Ezponda. Gai-emaile: Daniel
Landart.

URDAZUBI

Zerri hilketaren denboraldia

ALIZIA OLAIZOLA

Hasi dira betiko zerri
hiltzeak eta aurten ez da
hilketari berdina, zeren eta
gure betiko zerri hiltzailea,
Landibar auzoko Timoteo
Etxeberria, orain dela urte
bat hil zen. Gizon honek,
zerri hiltzen pasatu zuen
bizia, eta hagitz aipatua zen
hemengo alderdi hontan.
Orain zerri hiltzen dabil-
zanak Zugarramurdiko
Goantzekoa eta Landibar-
ko Martin Joxe dira.

• Artzainak hasi dira
ardiak jeitzen garaia de-
lakoz, eta gero esne hone-
kin gasna batzuk egiten



Urdazubiko karrika

dituzte eta gainetako esnea
saldu. Bainan denek ez dute
esnerik saltzen, badira Te-
lleria auzoan aita-seme
batzuk, Ignazio eta Daniel,
bildutako ardi esnearekin

gasnak, zenderenak eta
gaztanbera aunitz egiten
dutenak.

San Anton Eguna

11etan izan zen meza
nagusia eta Indiano Baita

jatetxean bazkaria. D. Jus-
tino jaunarekin bazkaldu
ondoren mus partidu bat
jokatu zuten giro ederrare-
kin.

Haurrentzat ikastaroak

• Hasi dira Urdazubiko
eskolan solfeo klaseak.
Sarako emakume batek
ematen ditu asteartetan
5atik 6ak arte, batzuetan
Urdazubin eta bertzetan
Zugarramurdiko eskolan.

• Cristina Irigoien eta
M^a Angeles Iribarren
sukaldaritza klaseak ema-
ten dituzte eta josturakoak
Anastasi Bidartek, asteaz-
kenetan 4atik 6ak arte.

Atzeratu egin behar izan dute berriro Herriko Pilota Txapelketa

Leitzak ere omendu nahi du Bengoetxea III.a



ANTTON

Motz, bai. Motz eta nahiko hotz ere aurtengoan pilotaren inguruko giroa herrian. Urterò, Iñauteri igandean jokatu ohi dira herriko pilota txapelketaren finalak. Aurten, ordea,

atzeratuak izan ziren; eta orain berriro. Arrazoiak, bat eta beste. Baina benetazko arrazoa, gure usteetan, giro mottela sumatzen dela gaztetxoaren artean pilotarekiko, eta herriko pilota eskola saiatu arren egin ahalean, kosta egiten dela gazteak frontoiara ekarraztea jokatzera. Egia esan, mottel dago pilota Leitzan azken boladan.

• **Baina beste kirolaririk bada**, adibidez, saskibaloia. Hamalau bertako ekipok izena eman dute he-

rriko saskibaloia txapelketan aritzeko, hamalau! Bost talde neskaz osatuak, eta gainerako bederatiak mutilaz. Eta hasi ere, hasi dira larunbata goizez, negu partean.

Bengoetxeari omenaldia

Juan Mari Bengoetxeak omenaldi handi bat izan du Labrit-en, baina Leitzak ere omendu nahi du Bengoetxea III.a. Pilotazale batzuen inizatiba izan da, eta gauza martxan dago. Hau idazterakoan, eguna finkatuta ez badago ere, otsailaren erdi aldera edo, omenaldi txiki baina kuttun bat eskeini nahi zaio Leitzan, herriko elkarte guztien artean antolatua.

• **Udalaren idazkaria** den Andoni Espartza dato-

zen lau hilabetetan ez da egonen bere postuan. Diputazioak funtzionarioentzat antolatutako euskara ikastaro batera bait doa. Lehendik ere ederki menderatzen du euskara, baina teknikoki hobetu nahi du. Berriki, idazkari honek Elgorriagan bizitzeko baimena eskatu zion Batzarri eta eman zitzaion.

• **Ikuskizun ederra** izan zen Leitzeko Iñauteritako "ezteiak", edo garai bateko ezkontza. Igande goiz hortan, jendez, argazkilariz eta bideo kamaraz betebeteta zegoen plaza, lekuri ezin eginez protagonistentzat. Eta, benetan ikusgarria izan zela, itzela, mundiala... (bale!). Antzetslana ederra izateaz gain, detaile osoz antolatua izan zen.



Leitza, 1850? Leitza, 1991. Iñauteriak. Ikustekoak ziren hango jantzi ederrak



Argazkiak: ANTTON

GOIZUETA

Hasi da gaztetxoentzako bertso ikastaroa

Beste norbaitek hasi nahiko balu, ikastolara azaltzea besterik ez du

ESTEBAN AROZENA

Euskara Batzordeak aspaldian zuen helburue-tako bat bete dela esan genezake duela aste batzuk hasi eta heldu den ekaina arte iraungo duen bertso ikastaroa martxan jartzea-rekin.

Hamahirutik hemezortzi urte bitarteko zortzi goizuetar eta bi aranoar hasi dira ikastaro honetan, hauetatik hiru neskak dire-larik. Bertso mundua mugitzen den parametroetan datu azpimarragarria da noski, hau.

Azken urte hauetan, bertsolaritzari buruzko no-zio batzuk ematen saiatzen da Lorentxo Aburuza Goizuetako eskoletan ere. Hau kontutan harturik, Aburuzaren lan horrek ernatzen dituen loreak jasotzea omen da ikastaro ho-



nen eginbeharra, hau da, eskoletako haur kopuru hortatik gaitasun edo zale-tasun gehiena dutenei irakaskuntza berezi eta espezifikoa ematea.

Gai honekin bukatzeko esan, larunbata arratsalde-tan ematen direla bi orduko klaseak, bertso munduan hain ezaguna den Joxe

Manuel Oiartzabal Andoaindarrak betetzen due-larik irakaslearen postua.

Ikastaroa duela aste batzuk hasi zela aipatu ba-dugu ere, Euskara Batzordekoek esan zigutenez beste gaztetxoren batek parte hartu nahi balu, hurrengo larunbatean arratsaldeko 7etan ikastolako

gelara azaldu besterik ez du egin behar.

Udala Xorroxin eta Euskalerrria irratien alde

Gure zonaldeko beste udal askoren antzera, Goizuetakoak ere bere apoioa luzatu die Euskalerrria eta Xorroxin irratiei, bi emisora euskaldun hauek legezatuak izan daitezela eskatuz Nafarroako Gobernuari. Hortaz gain, irradi hauek burutzen duten lanaren giza interesgarritasuna eta kultur balioa aitortu beharko luke Nafarroako Gobernuak.

Erabaki hau, Foru Diputazioari, parlamentuko giza eskubideen batzordeari eta komunikabideei bidaliko die Udalak.

Ez dago esan beharrik, noski, ahobatez onartua izan zela akordio hau.

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

IBARROLA

HAURRENDAKO
ARROPA
MERTZERIA

Parrokia 6
Tfnoa: 59 44 63
DONEZTEBE

EZKONTZAK

Julia Arraras Usabiaga eta **Juan Fermin Baraibar Otxotorena**, Leitza eta Oskozkoa, Otsailaren 2an.

JAIO TZAK

Oihane Calderon Callejas, Leitzan, 1990ko Abenduaren 24an.

Letizia Jorajuria Iribarren, Urdazubin, Urtarrilaren 24an.

Julen Ariztia Iribarren, Urdazubin, Urtarrilaren 24ean.

Irati Odriozola Zugarramurdi, Goizuetan, Urtarrilaren 18an.

Esther Gurutzet Altugarai, Lesakan, Urtarrilaren 22an.

Maitane Larretxea Elizondo, Donezteben Urtarrilaren 10ean.

HERIOTZAK

Maddi Agirre Berrueta, Etxalarren, Urtarrilaren 17an, 75 urte.

Miguel Latasa Galarregi, Lesakan, Urtarrilaren 17an, 73 urte.

Fco. Javier Perez Frutos, Beran, Urtarrilaren 19an, 29 urte.

Jose Mari Odriozola, Leitzan, Urtarrilaren 30an, 75 urte.

Angela Iturrazte, Leitzan, Urtarrilaren 28an, 85 urte.

Fco. Anzizar Arrupea, Donezteben, Urtarrilaren 10an, 63 urte.

Justa Agesta, Urrotzen, Urtarrilaren 29an, 79 urte.

J. Simon Telletxea Bengoetxea, Oitzen, Urtarrilaren 28an, 84 urte.

Jose Juanena Elizondo, Urrotzen, Urtarrilaren 31an, 78 urte.

Jose Juanena Ariztegi, Oitzen, Urtarrilaren 31an, 77 urte.

Petra Saldias, Beintza-Labaieren, Urtarrilaren 22an, 83 urte.

J. Jose Barrenetxe, Erratzun, Urtarrilaren 30an, 78 urte.

Karlos Martikorena, Elbetean, Urtarrilaren 15an, 93 urte.

Fca. Elizaga Urtxipia, Elizondon, Urtarrilaren 28an, 64 urte.

Jose Espelosin Agesta, Sunbillaan, Urtarrilaren 31n, 68 urte.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

IRURITA - BAZTAN

✓ Sukalde,
logela,
jangela eta
egongelarako
mobleak

✓ Koltxoiak

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Zure iragarkiak
inguru honetako
4.000 etxetara
zabaldu nahi
badituzu, deitu
631188 telefonora

Urtetik urtera jende kopuruaren gorabeherak ikusita, garrantzia haundiko datuak atera daitezke gure herrien etorkizuna nolatsukoa izanen den jakiteko.

Tendentziak nagusiki erakusten duenez, orokorrean, azken urteotan jende kopurua haunditzen baino gehiago ttikitzen ari dela ematen du. Badago, noski, pixkanaka-pixkanaka bizi-lagun kopuruaz haunditzen ari diren herririk ere, edo behintzat, azkeneko urte honetan, joera hori erakutsi dutenak.

Azken orduan lortu ditugun datuen arabera, –herri batzutan ez bait dauzkate oraindik datuok zehaztuak– kasu honetan daude

Arantza, Bera, Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Igantzi eta Oitz iaz baino bizilagun gehiagorekin, alegia. Gainontzeko herrietan, iaz baino bizilagun gutiago daukate.

Edozein gisatar, begibistan dagoena zera da: populazioa ez dela berretzen ari eta horrek, aldaketa ugari sortzen eta sortuko dituela luze gabe hainbat alorretan.

Zenbat jende bizi da gure herritan?



Herri ttikien etorkizuna?



Papax Fagoaga, Beintza-Labaien, Urrotz, Oitz eta Donamariako idazkaria.

Alde batetik jendearen batzaz bertzeko adina altua-

goa da eta bertzetik, gazteek bertan lanbiderik aurkitzen ez dutenez, herritik aldegiten dute. Lanbiderik garrantzitsuena nekazaritza dugu eta EEEn sartuz gero, badirudi honek errentagarritasunik ez duela. Etorkizuna? Administrazioak nekazaritza tradizionalari alternatiba baliogarriak aurkitzean dago kokka: ahateak, kiwiak, nekazal-turismoa...

Joan den urtean demografia aldetik izandako gora-beherak herriz-herri

HERRIAK	BIZILAGUNAK 1990/1/1	JAIOTZAK	HERIOTZAK	HERRITIK JOANAK	HERRIRA ETORRIAK	BIZILAGUNAK 1990/12/31
Arantza	745	5	2	10	14	752
Baztan	8.202	51	82			
Beintza-Labaien	335	4	6	11	9	331
Bera	3.543	31	30	65	84	3.563
Bertizarana	668	4	3	12	19	676
Donamaria	406	3	2	9	11	409
Doneztebe						
Elgorriaga	188	1	1	0	2	190
Goizueta	1.045	11	4	15	8	1.045
Igantzi	595	5	5	5	8	598
Ituren	494	5	10	2	4	491
Leitza	3.148	25	12			
Lesaka	2.824	24	33	50	31	2.796
Oitz	168	4	1	5	5	171
Sunbilla	766	6	11	15	4	750
Urdazubi	494	3	2	26	9	478
Urrotz	235	1	1	3	0	232
Zubieta	344	0	7	7	3	333
Zugarramurdi	282	1	5	1	2	279

Eskola itxien etorkizuna?



itxi zuen, kontzentratzearen alde azaldu zelarik. Gaur egun erizpide ekonomikoek bortxatuta edo, jarraz aldatu dute eta badi-rudi dozena erdi bat haur dituen eskolak ere mantenduko dituela.

Orain aldiz, gure herrietako biztanlegoaren beherakadak eraginda, zenbait eskola itxi dira eta gehiago itxiko dira urte gutxiren buruan.

Pello Lizarralde, Azpil-kuetako Eskolako irakaslea.

Garai batean adminis-trazioak eskola ttipi aunitz

Kanpotik bertara datozenen



Joxe Luis, Leitza-ko "Txoko" tabernakoa.

Generalki, serbizio sektorearentzat lana, hori

bistan dago. Eta jende-ari, komunikazioa, beste jende desberdinak ezagutzeko bideak. Momentu konkretu hontan, Leitza-ko kasuan, pisuen prezioen igoera eta alkilerrak disparatzea suposatzen du, eta bertakoentzat ezinezkoa izatea pisu bat hartzea, prezio horitan.

Pottoka: «Estudioan grabatzea, zuzenean jotzea baino zailagoa egin zait»


Lagunentzat Pantxo denak, Pottoka izenaz ezagutarazi nahi izan du bere burua publikoki.

Eta izan ere, izen horrek biltzen omen du hobekien berak musika munduan egin nahi duena, musika munduan libreki trostan ibili, alegia.

Dagoeneko, argitaratu berri diren bi diskotan, Mikel Laboari dedikaturiko "Txerokee"n eta Oihukak lau talderen kantuekin egingakoan, entzun daitezke Amaiurtar honen kanteke barreiatzen duten estilo propioa.

Dena den, zuzenean entzuteko aukerarik ez zaigu faltatu inguru honetan, lehenik Elizondoko Fortenean eta berrikiago, Lesakako Atxaspi ostatuan.

Aitortu digunez, gustarago aritzen da zuzenean estudioan grabatzen baino. Ez da harritzekoa, bi esperientzia baino ez baitira oraindik!



a

mak kitarra klasikoa erosi zionetik, makina bat ordu sartuak ditu Pantxok soinu berriak esperimentatzen eta maketak grabatzen, gero lagun eta han-hemenka aurkituko dituen musika produktoreei bere lanaren berri emateko balioko diotenak. Elizondoko Lanbide Eskolan ikasten ari zela

gogoratu zitzaion monjek antolatutako ikastaro batean apuntatzea. Horrelaxe ikasiko zuen kitarrarekin lehen akordeak jotzen. Denborarekin kitarra elektrikoa eta anplifikadore baten jabe egin zen eta hortxe hasiko da etengabeko esperimentazioaren aintzina pausorik nabarmenena.

"Lehendabiziko doinua sortzen dut eta gero... denborarekin, lanean edo lagunekin nagoela, egoki zaion letra jartzen diot."

Gaiak hautatzerakoan ez omen du lan gehiegirik izaten, *"gaia nahikoa bada hemen... gauzetaz kontu ematen bazara, pilaka aurreratu dituzu"*.


Modu honetara, bere kantuen bitartez, eguneroko gertakizunen eta bizimoduaren bertze ikuspegi bat *"monetaren bertze aurpegia agertu nahi dut"* dio Pantxok.

Lehen kontzertuak

Erratzuko Txetxenkok "apadrinaturik" jo zuen lehen aldiz Baionako ostatu batean, *"egia erran, ez nintzen ausartzen Baztanen jotzera eta nahiago izan nuen bertze nonbait izatea. Gero Hernanin jo nuen bertze taberna batean eta... hirugarren kontzertua izan zen Elizondoko Fortenean jo nuena... eta orduantxe, definitiboki... presentación oficial alternativa egin nuen Baztanen."*

Beti maketaren bat sakelean

"Holako batean, Eginen idazten duen Jimmi Tijuanari bidali nion bat, eta handik lau hilabetetara edo, elkarrizketa bat argitaratu egin zuen. Hau, Fermin Muguruzak leitu izanen zuen eta etxerat deitu egin zuten maketa bat eskatuz. Hori dela eta sartu nintzen Txerokee diskoan".



Kontzertu gehienak ostatu eta gaztetxetan. Argazkian, Fortenean

«Neure estiloa bilatzen dut»

"Kanpoan egiten den musikak influentziarik sortzen badu ere, saiatu egiten naiz kopia bat ez

izaten eta zerbait berria eta gurea dena aportatzen" dio Pantxok. Bere kasuan, atzeritik datozen soinue-tan baino, azkeneko sei urteotan Euskal Herrian egin

den kitar-soinuarekin lotura haundiagoa duela aitortzen zigun. Horrekin batera, *"amitx entzun dut baita jota eta trikitixak eta... nahasi egiten zaizkit gain honetan... buruan, erdia dut kitarra eta bertze erdia trikitixa... eta horrela ateratzen da ateratzen dena"*.

«Musikatik bizitza ongi harpatzen dut»

Etorrizunerako dituen asmoak direla eta ez direla, *"gustoko gauzak egin eta gero hori saldu egiten bada, nik ongi harpatzen dut"* dio Pantxok zalantza haundirik agertu gabe. Bertzalde, kontzertuak egitea litzateke helbururik hurbilena eta horretarako... *"nik markatutako kondizonekin bat etorri garenez, orain badut manager bat, ieepaaa!!"*

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Club Ciclista Beratarra, 10 urte txirrindularitza lantzen

Gaur egun 160 bazkide ditu

Hamar urtetako historian barrena kirol honetara herrian dagoen afizioa piztu du Club Ciclista Beratarrak, hainbat saio arrakastatsu antolatuz eta herriko zaleekin lan eginez.



Euskadiko II. Pedalaren egunean, Berako partehartzaileak (1983)

Goiko

Club Ciclista Beratarra, 1981. urteko urtarrilaren 18an sortu zen, txirrindula zale batzuren eskutik eta hau horrela izan zen, Berak Euskalerriko Itzuliaren etapa amaiera bat antolatzeko aukera izan zuelako.

Orduan, Gure Txokoa elkarteak, baietza eman ondoren etapa amaiera hau antolatzeari uko egin zion. Horregatik, adin guztietako txirrindula zaleak bildu, etapa hau antolatu eta Club Ciclista Beratarra izeneko elkarte osatzea erabaki zen, hutsetik aterita, milioi

erdiko aurrekontua izanez lehen froga honetarako.

Froga hau antolatu eta hainarrakasta haundia izan zen, erran dezakegula Beraren edo Club Ciclista Beratarren kasua, ez ohizkoa dela Euskalerriko Txirrindulari Itzulian, aurtengo edizioarekin hamaikagarren aldia baita froga garrantzitsu hau Ibardineko gainean bukatzen dela, Itzuliaren "erregina" bezala izendatu dezakegularik.

Elkarte sortutakoan, igandero bizikletan zebil-

tzanak hurbildu ziren, azkenean berrogeitamar bat zikloturista bilduz, uda osoan martxak antolatuz eta denboraldi bukaeran sariak emanez irteera guztiak egin zutenei.

Gazteak ere apuntatzen hasi ziren, elkarteko partaideen harridurarako, azkenean, zonaldean lehen izanen zen Txirrindulari Eskola sortuz eta Club Ciclista Baztandarrarekin batera, Baztan-Erreka-Bidasoa eskoletako Erregularitate txapelketaren bul-tzatzaile izanez.

Antolatutako froga garrantzitsuak

Euskalerriko Itzuliaren hamar etapetaz gain, elkarte honek profesionalentzako Españako eta Euskadiko ziklo-kross txapelketak eta beste ziklo-kross frogak antolatu zituen, hauen artean aipagarri "americana"-rena TVE kamaren aurrean.

Elkarte honen iniziatibaz Euskadiko Pedalaren Eguna sortu zen, gaur egun Euskalerriko bertze zenbait herrietan ospatzen dena, eta

nola ez, hainbat txirrindulari froga, emakume, adindu edo beteranoeentzat eta gazteentzat antolatu ditu.

Oraina eta geroa

Gaur egun, elkarte honek 160 bazkide ditu, bere egoitza Udalak Eztegarra Pilotalekuan utzitako lokal txiki batean duelarik. Udalak dituen eraikuntzen banaketa egiterakoan, egoera hobean dagoen egoitza bat ematea espero

dute.

Elkartearen etorkizuna frogak antolatzen jarraitzea eta txirrindulari batzuekin froga federatuetan eta zikloturista irtenaldietan parte hartzean datza.

Lehenengo direktibatik Enrique Irazoki lehendakariak, Jose M^a Telletxea idazkariak eta Ignacio Irazoki bokalak jarraitzen dute, gaurkoa hamar bazkidek osatzen dutelarik.

Zenbait Udal, Malerrekako koordinatzailearen arazoaz mintzatu



Bileran elkartu alde batetik Baztan-Bidasoako Junta Direktibaren partaideak (Bortzirietakoa, Malerrekakoa eta Leitzakoa, Baztangoa ez bait zen gonbidatua izan) eta bertetik, Elgorriaga, Ituren, Urrotz, Bertizarana eta Sunbilla udaletako gertatukoaren berri eman zelararik. Koordinatzailea-

ren arazoa behingoz konpontzeko, Nafarroako Gobernuko ordezkariekin bilera eskatzea erabaki zen; hau da, plaza hori konbokatzea. Bertzalde, Udalen Asanblada ere konbokatzea komenigarria ikusi zen. Euren aldetik, herrietako koordinatzaileak beren zonaldetan elkarteekin bilerak egiteko asmoa dute.



Gazteekin egindako lana garrantzitsua izan da

Hamabostaldiko jokaldiak

Jokaldirik hobereena

Basaburuko eta Sunbillako emakumezko arpanlariak.

Hori dun hori lotsik gabe arpanean aritzea jotake. Prestatzen ahal zarete Nafarroako emakumezko arpanlari txapelketan parte hartzeko.

Jokaldirik txarrena

Javier Elizalde, Baztan-Bidasoako Kirol Batzordearen zuzendaria.

Elizalde jauna, haurrak kirolik gabe egotea zuen arduragabekeria ez al zaizu inporta? Noiz arte egon behar dugu horrela?



Beteranoak Felix Errandonea III. memorialean

Bihotzeko infartoaren prebentzioa

EGIN diren estudioen arabera, ez dago dudarik infartoa izateko arriskua haunditzen dutenen artean honako bortz faktore hauek daudela:

1.- 60 urte baino gutxiagoko gizonezkoa izatea.

2.- Odoleko kolesterolaren gehitzea.

3.- Tentsioaren igotzea.

4.- Tabakoa erretzea.

5.- 35 urte baino gehiago izatea.

Gainera, ezin dugu auzendu hauek bezain garrantzitsuak diren bertze faktore batzu, aurrekoekin batera ematen badira, koadroa okertu egiten dutenak.

1.- Loditasuna.

2.- Ariketa fisikorik ez egitea.

3.- Bizitzaren stressa.

Guzti honekin erran de-

zakegu, infartoa izateko arriskua gutxitzeko beharrezkoak diren gomendioak honako hauek lirateke:

1.- Zigarroak erretzeko ohitura utzi.

2.- Loditasunarekin kontuz ibili.


3.- Egunero ariketa fisikoren bat egin.

4.- Kolesterola gutxitzeko dieta moldatu.

5.- Tentsioaren igoera zaindu.

6.- Bizitza nahasi batetara eraman eta estresa eragiten dizkiguten egoeretatik ihes egin.

Guzti hau garrantzitsua da; baina badira zenbait pertsonen kasuak infartuak izaten dituztela aurretik ikusi ditugun arrisku faktorerik izan gabe, eta horrexegatik, gaur egun ezezagunak diren arrisku faktoreak ikertzen ari dira medikuak.



Faktore berrien aurkikuntzan ematen den edozein aurrerapenaren berri

emanen dugu.

BENEDICTO AGIRRE

Lara

MUSIKA DENDA
ZERBITZU
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guztiak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA

LUR APAL

MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA



MERKEALDIAK

San Migel auzoa 27,
450883 - DONEZTEBE

ARO BERRIAREN ATARIAN

Astrologia

Acuario, ...gizona

Mitologian ez dago zeinu honi dagokion pasarte berezi bat. Lehengo astrologoentzat zeinu honen eragina eta Capricornioarena hurbilekoak ziren.

1781. urtean Herschel-ek Urano planeta aurkitu zuen. Garai nahasia eta garrantzitsua zen -Frantziako iraultza, Estatu Batuen independentzia, iraultza industrialaren hasiera-. Geroztik planeta berria fenomeno horiekin erlazionatzen da. Urano planetak Acuario zeinua-ekin lotura haundiak ditu, bere errejentea bait da.

Negua

Negua Capricorniokin hasi zen, Acuariokin segitzen du. Lurhonetan iadeus egiterik ez dago, dena hila bezala bait dago. Lehengo gizonak egiten zuten bezala, hau da unerik egokiena elkarrenganatzeko, negu gogorraren aurrean elkartasuna agertzeko eta etorkizunerako planak



egiteko: elkartuta errazago da trabak gainditzea bakarka baino. Artzaiak ere ardiak bildu eta beheko belai eta etxetara eramaten dituzte; arestian errandakoaren harian, bakardadea utzi eta gizartera biltzen dira.

Acuario arketipoa

Acuario airezko edo zeinu fijo da. Hau da mundua aurrera bultzatzen duen zeinua, egoera hobetze eta ideal berrien ondortik dabilena. Zientzi berriak eta inbentiba Acuarioren eraginpean omen dira. Al-

daketa eta erreformen bidez gizartearen bizi maila altxatu nahi du. Itxuraz moderno da, bainan eriztitan setosoa eta buru gogorra, ez da pentsamodua aisa aldatzen duen horietik.

Zeinurik hoberena?

Acuariotarrak behintzat hori uste dute. Maitagarriak, ongi edukatuak, laguntzaileak... Libertatea eta independentzia ez dute deusegatik galdu nahi. Erlaziotan urruntasuna eta hotzetasuna nabaritzen zaie. Hain idealistak eta taldekoiak direnez zaila egiten zaie bere burua pertsona bati bakarrik lotzea. Gainera maitasun arloan ez dira sobera apasionatuak. Aldiz, talde edo ezkontza barrenean behar duten askatasuna ematen bazaie, fidela eta leialak izan ohi dira.

FERMIN ALTZUGUREN

Guzi hauen
zerbitzura gaude



koxka

KOXKA NAVARRA, S.A.

ZERBITZU TEKNIKOA

BERAN: 63 08 98 Tfnoan.

IRUÑEAN: 26 64 11 Tfnoan.

✓ DENDA

✓ SUPERMERKATU

✓ IZOZTEGI

✓ HARATEGI

✓ ARRAINDEGI

✓ GOZODENDA

LORA DENDA
Bittiria LESAKA

Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42

LESAKA

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

• **Behobian** etxebizitza salgai Txantre etxetan. Tfnoa. 943 - 623288.

• **Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

• **Doneztebe** inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

▼ Lana

• **Astean zehar** Bera, Lesaka edo Irunen lan eginen nuke; bai hurrekin, etxeko lanetan, ostatu batean edota komertzio batean. Dei 630789 tfnora.

• **Administrari bat lan** egiteko prest; 7 urte terdiko bulego-esperientzia. Tfnoa.: 943-51 38 95

• **Astean zehar** Beran, Lesakan, Igantzin edo Etxalarren edozein lan eginen nuke. Esperientzia hurrekin eta dendetan. Tfnoa: 45 05 28

▼ Salerosketak

• **DOLMAR** 122 S motozerra salgai.

Tfnoa: (943) 490619

• **“Desbrozadora” bat** salgai dago Arizkunen. Berri-berria, batere ibiltzekoa. Deitu 453037ra 3etatik aitzinera.

• **ALPINA PROF** 41 motozerra salgai. Tfnoa (943)490619.

• **Akordeoi bat salgai** Estrella markakoa. Gorri kolorekoa, tekladuna eta 96 baju dituen. 450499 tfnoa.

• **Bazka egosteko pazina** erosiko nuke. Tfnoa. 592043.

• **Esne tanke** bat, Japy markakoa 150 litrokoa saltzen da. Tfnoa. 450465. Begoña - Donamaria.

• **Logela bat** salgai dago. Erabili gabekoa. Goatzea 1,35 mkoa., armairua bost atekoa, bi mesilla eta tokadorea. Haritz egurrez egindakoa. Tfnoa.: 637879

• **AH - Goldoni** traktorkarria salgai. Tfnoa: (943) 490619. Oiartzun.

• **Asto bat** salgai daukat. Lanean hezia eta emea. Tfnoa: 61 50 16. Saldias.

• **Montesa “Cota 309”**

motorra salgai daukat. Gutxi erabilia. 330.000 pzta. Deitu larunbata goizetan 630412 Tfnoa. Mikel.

▼ Denetarik

• **Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

• **Beran, negutegiak** jartzeko terrenoa behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054.

▼ Harremanak

• **Iruritako** mutil barentzat, Lesakako bi nesken partetik: oso ona zarela eta zutaz zeharo maite-minduta gaude. Gustatuko litzaiguke zurekin enroilatzea baina ezinezkoa da. Bi muxu eta Lesakan ikusi arte. Memi.

• **Pottoko** maitia, betirako maite zaituen baten partez, jaso ezazu muxu eta besarkada haundi bat.

Maite zaitut. Miren.

• **Leitzako** Aitziberri: nere esker eta agurrik berroenak, ze berari eta aldizkari honi esker Baztango berriak jasoko ditut nere etxean, bihotzez zarauztar batek.

• **Andres** Elizaintzinentzat: beti izanen zaitut nere bihotzean, eta espero dut hemendik aurrera ensaioetara agertzea. Neska misterioitsu baten partez. IKU-si arte. B.D.

• **Erratzuko** Martin laztanari: ez zera niretz oroituko bainan ikusi zintudanean zutaz bihotz mindu nintzen, berriz ere Bordatxon ikusiko nizuke eta musu bero bero bat eman zure mutur zabal gorri horretan. Arraiotzko neska bat. A.X.Z.

• **Leitzako** Bernari Lesakako Amaiaren partez: Bordatxon ikusiko gara eta oso ongi pasatuko dugu elkarrekin. Muxu haundia.

• **Berako** Joseba Lasartentzat. Zutaz maite-mindurik nago. Musu bat eskeintzen dizut. Lesakako neska baten partez. (M.T.)

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188


DENBORAPASA



	●	▼		Jaurtigaia	▼	●	▼		Zigarra
	Sakramentu kristaua			Seta		Idi, hitz elkar.			
▶				▼		▼			▼
	Galegoak, adibidez	▶							
	Idazteko tresna								
▶						Musika nota	▶		
						Asiako Estatua			
●	▼	Hesiz	Lehen eta azkenekoa	▶		Zezen zikiratu	▶	▼	
●		inguratu	Bat			Iridioa			
▶		▼	▼		Gipuzkoako hiria	▶	▼		
					Nekatu				
Musika nota	▶		Ibarra	▶	▼				
Ikusten ez dutenak			Likido edangarria						
▶			▼			Gure autoetan	▶		●
						Lehen bokalak			
Ukimendua	▶					▼	Modu atzizkia	▶	▼
Sagu artea							Sail		
▶							▼	Nitrogenoa	▶
								Bokala	
Pare bat	Urania	▶	Urrea	▶		Bi gehi bi	▶	▼	
	Iaz		Barre			(Her.) Ezak			
▶	▼	Iparretarrak	▶	▼	(Errep.) Txori mota	▶	▼	500	▶
		Gipuzkoako herria			Egunaren parte ilun			Erraten du	
Su	▶	▼		Herri nafarra	▶	▼		▼	
●				Alde!					
▶				▼				Kasik	▶
								Kontsonantea	
Zauzka	▶					Bizk.	▶	▼	
						Duk			

● Gure Iñauteetako zenbait pertsonaia

ENBIDO



OKANE

Haragi, janari-izoztu,
enbutido, yogurt,
urdai-azpiko eta
bertzelakoetan...
sekulako aukera prezio
eta kalitatean
Zatoz eta proba ezazu!!

Beran, Harategi-Urdaitegi berria

Kanttonberri 4, Tfnoa: (948) 63 00 18 - BERA

Lesakako Iturria anaiak

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Irunen, zure bainurako behar dituzun osagarri guziak:
griferiak, manparak, mobleak, gres eta zeramikak

Juan Arana, 3 - Tfnoa: (943) 61 17 67

IRUN